# SOUTHAMPTON




**GOMENDATUTAKO ADINAK:** 14 - 17 urte.
**DATAK:** ekainaren 26tik uztailaren 24ra.
**IRAUPENA:** 4 aste.
**IRTEERAK:** Bilbotik. Kontsultatu beste toki batzuetatik dauden irteerak

**Aukerak: Performing Arts, futbola, hockeya edo tenisa.**

## HIRIA

**Southampton** 230.000 biztanleko hiri bat da, Ingalaterra hegoaldean dago eta Erresuma Batuko merkataritza-portu garrantzitsuenetako bat dauka.
Hortik abiatu ziren, besteak beste, Titanic edo Queen Mary ontziak. London ordubete ingurura dago trenez.



## ESKOLA

Solent University campusean izango da ikastaroa; instalazio bikainak ditu, teknologia modernoekiko gelak, kafetegia, egoteko tokiak, kanpoko patioa eta wifia ikasleentzat. Parke polit baten ondoan dago eta Southamptoneko merkataritza-zentroaren ondoan ere bai.



## IKASTAROAK, JARDUERAK ETA IBILALDIAK

.- Astean **15 ordu klase** izaten dira eta gela bakoitzean gehienez 15 ikasle egoten dira, lehen egunean egindako testaren arabera mailatan banatuta. Aste batean goizez eta bestean arratsaldez izaten dira klaseak, jarduerak ere batzuetan goizez eta besteetan arratsaldez izaten dira.

.- **Jarduera programa osoa,** kirolak, kultura, jolasak, gaueko jarduerak, diskoteka, barbakoak, jaiak. Egun erdiko ibilaldi bat eta egun osoko beste bat aste bakoitzean: Londonera,
Oxford, Brighton, Bath, Winchester, Dorseteko kostaldera…



**Performing Arts egiteko aukera**, astean 4 arratsaldez uztailaren 3tik aurrera, bere programa orokorraren ordez
beste jarduera hauek egin ditzakete. **Zure trebezia artistikoak erakusteko modu egokia!**
Futbolerako, hockeyrako edo teniserako aukera, osagarri baten bidez; astean 12 ordu, programa orokorraren ordez, profesionalek emanda.

## OSTATATZEA

Eskolak aukeratutako **familietan**, logela beste batekin partekatuta, mantenu osoan.
Familiatik eskolara joateko **tokiko garraioa** barne.

